

## Ohorez

Joseba Azkarraga

*Berria*, 2004-10-05: XI.

Ohorea, Martin. Ohorezko agurra, bai, zuri egin beharrekoa, beti azaldu duzun xalotasunarekin. Ohorea zure izen ona aldarrikatzeko, zure bizitzagatik eta gizatasunagatik. Ohorea, gaixotasunak hitza erabiltzea galarazten zizunean zure izena zikintzeko saioa ofizialki eta jendaurrean gaitzesteko.

Hitza izan delako zure herria eta hizkuntza defenditzeko erabili duzun tresna handia, zure tresna bakarra. Horrexegatik zara euskal kulturaren ikurretako bat, zure jokabide demokratikoagatik eta askatasunaren aldeko borrokarengatik duintasun eta koherentzia eredia zaren modu berean.

Iritzi horiek bizi zinen bitartean plazaratu nituen, eta horregatik ausartzen naiz gogora ekartzera, berriro ere, zure heriotza fisikoaren orduan. Eta halaxe adierazten dut, zu bezalako pertsonak ez direlako inoiz joaten, nire ustez. Esango didazu, bai, zure laguna izateak ematen didan grinak bultzatuta ari naizela; baina, hori egia izanik ere, azpimarratu behar dut egia eta justizia nire sentimenduaren gainetik daudela.

Ezer ez da zure konpromisoa baino egiazkoagoa, ezer ez azken orduan egin zizuten bidegabekeria salatzea baino zuzenagoa. Frankismoaren jazarpena jasan arren, inoiz ez zenuen askatasuna kendu zizutenekiko gorrotoaren zantzurik erakutsi. Ziur naiz herra ez zela zugaran sustraitu, ezta *Egunkaria* itxi zuen eta zu ere inputatu zintuen prozesurengatik ere.

Azken agurraren duintasuna kendu nahi izan dizute, eta nik hori salatu eta deitoratzen dut. Jakin dezatela, Martin laguna, ez dutela lortu. Eredua zara –eta izango zara– herri honentzat. Agur, jauna. Agur eta ohore.